

GIZARTE SEGURANTZAREN ZEREGINA, ONGIZATEAREN GAKOA: EGUNGO EGOERA ETA ETORKIZUNENKAK

Vicenç Navarro irakasleak dioen bezala, Espainian garatutako gizarte-politikan hiru esku-hartze historiko nabarmendu dira:

- Demokrazia-aldiaren hasiera: ongizate-estatuaren hedapen nabarmena, aurretik hutsala zen gastu sozialaren hazkunde handirekin batera.
- Euroaren sarrera: Maastrichteko Tratatuak ezarritako defizit publikoaren murrizketa (BPGren % 7tik, 1998an %3ra eta 2002an %0,2ra), neurri handi batean, gastu soziala murriztuta lortu zen.
- 2008an hasitako krisi ekonomiko, politiko eta sozialari austeritate-politikekin, lan-erreformekin eta murrizketa sozialekin egiten zaio aurre funtsean.

Nola gaude gaur egun? Ongizate-estatuak ez du nahi besteko garapenik izan. Gaur egun ez du laguntzen, bere unerik onenetan egin ohi zuen bezala, gizarte-kohesioa eta berdintasuna bermatzen. Ikus dezagun zergatik:

- Ez dago erabateko enplegurik, eta, oro har, dagoena oso kalitate eskasekoa da.
- Gizarte-premiei ez die erabat erantzuten.
- Zerbitzu publikoen kalitatea okertzen ari da gastu publikoa murriztu delako.
- Enpresaburuei hainbesteko boterea eman zieten lan-erreformekin,, lan-harremanen ereduak jada ez du babesten hauskorra boteretsuaren aurrean.

Gizarte Segurantzari dagokionez, azpimarratu behar da pandemiaren ondorioen aurkako borrokan abian jarri dituen neurri anitzak oso garrantzitsuak izan direla eta izaten ari direla; izan ere, ahalegin handia egiten ari dira administrazio publikoak aldi baterako ezintasuneko 700.000 prestazioekin(IT-Covid), behar adinako kotizaziorik ez daukaten edo jarduera eten duten 1,4 milioi autonomoei -denera 3,4 milioi langileri- langabezia-estaldura emateko enplegu-erregulazioko espedienteekin -ERTE prestazioak-. Ez da ahaztu behar 3 milioi langile baino gehiago eta 1,5 milioi autonomo salbuesten direla ABEEren kotizazioetatik, eta enpresa-kuoten eta Langile Autonomoen Araubide Bereziaren (LAAB) ordainketarako geroratze eta luzapenak ere.

Gizarte Segurantzaren lehentasuna osasuna eta enplegua babesten laguntzea izan da, ekoizpen-jardueraren gaineko eragin ekonomikoa murrizteaz gain. Inpaktu hori, egiazta daitekeenez, Gizarte Segurantzaren Sistemak jasaten du, alde batetik, prestazioen igoerekin eta, bestetik, diru-sarreraren galerekin.

Pairatzen ari garen ezohiko egoera honetan, Gizarte Segurantzak, beste askotan bezala, funtsezko zutabe bihurtzen ari da, eta aparteko finantzaketa behar du abian jarritako gizarte-babeseke eta jarduera ekonomikoko neurriak ordaintzeko. Une honetan bizitzen ari garenak Gizarte Segurantzak osoaren egoera ez kaltetzea ahalbidetu nahi bada, Estatuko Aurrekontu Orokorren behar besteko ekarpenekin egin behar da finantzaketa hori.

Aparteko finantzaketa hori zorrarekin finantzatu behar da, ez dago beste erremediorik, eta ahalik eta lasterren egin behar da. Oraingoan, Gobernuak 30.000 milioi euro gehiago transferitu ditu, eta aurreko 13.800 milioi euroei gehituta, aurten transferitutako 43.800 milioi euroei buruz ari gara.

Baina, beste behin ere, kopuru horren erdia mailegu gisa egin denez, Gizarte Segurantzak Altxor Publikoarekin duen zorraren fikziozko egoera bat sortzen ari da, eta hori zuzendu egin behar dela uste dugu. Hainbat gobernuk ezagutzen dute gai hori, eta, antza denez, egungo gobernu aurrerakoiak partekatzen du, baina ahalik eta lasterren argitu behar da.

Pentsio-sistemari dagokionez, ona litzateke eztabaida lehen ideia sendo baten inguruan kokatzea: pentsio-sistemaren egoera ez da pandemiaren ondorioz aldatu. Ageriko eragina dagoen beste arlo batzuetan ez bezala, hala nola krisi ekonomikoan edo enplegu-galeran, pentsio-sistemak ez du funtsezko aldaketarik izan, eta pandemiaren aurreko erronka berberak ditu oraindik ere, honako hauekin zerikusia dutenak:

- 1) Pentsioak nahikoa izatea.
- 2) Sistemaren iraunkortasuna eta
- 3) demografiaren bilakaera, batez ere Baby Boom-en belaunaldia erretiroan sartzen ari delako. Pentsio-sistemaren eskakizun nagusiaren gakoak ez dira jaiotza-tasa, bizitzaren luzapena edo bizi-itzaropena handitzea. Erronka da sistemak presioa izango duela gure historiako belaunaldi ugariena erretiratzeko adinean sartzearekin, eta horrek esan nahi du erronka honi heldu beharko diogula. Pandemiaren aurretik genituen erronkak dira eta pandemiaren ondoren ere hor darraite. Beraz, hor kokatu behar da eztabaida.

Erronka zorrotzak dira, baina erabat onargarriak eta gobernagarriak, eta ezin dira formula magikoen bidez konpondu. Gizarte Segurantzaren arazoak ez dituzte kontu nazionalak konponduko, ezta Pentsio Sistema Publikoaren ordean banakako kapitalizazio-sistema osagarri bat jartzeak ere. Banaketako gizarte-segurantzako sistema publikoak ez dira banakako kapitalizazio-sistemak. Ekarpenean mailak ezin dira konparatu prestazioen mailekin,

aseguramendu-sistema kolektibo eta bateratua direlako eta, gainera, elkartasun-osagaia dutelako.

Azken urteotan, beste herrialde batzuetatik gizarte-babeseko ereduak inportatzeko joera ikusi da, gutxieneko pentsio publiko baten babesa kapitalizazio-sistemekin osatzera bideratutakoak, (Holanda, Danimarka, Erresuma Batua edo Suedia). Ona da beste herrialde batzuetan zer gertatzen den jakitea, baina ez kostu sozial handiak dituzten ereduak inportatzeko. Gainera, herrialde bakoitzeko pentsio-sistemak ezin dira beste aldagai batzuetatik bereizi, hala nola jarduera-tasatik, gizonezkoen eta emakumezkoen enplegutik, demografiatik, produktibitateetik edo egitura fiskaletik.

Bestalde, pentsioei buruzko eztabaidari zorrotasunez ekiteak orientabide lerratuak eta, askotan, asmo txarrez beteak alde batera uztea eskatzen du. Eztabaida egin da, banaketa-sistema bat aztertzeraz bideratuta, aseguramendu kolektibo unibertsalaren berezkoa, segmentu kontributiboa eta asistentziala dituen, eta finantzaketa mistoa duena, kotizazio sozialekin eta Estatuaren ekarpenekin, kapitalizazio-sistema indibidualei dagozkien aldagai finantzarioak erabiliz. Horixe egin dute Espainiako Bankuak eta Espainiako Aktuarioren Institutuak azken azterlanetan. Eta hori, berez zentzurik ez duena, tamalgarri bihurtzen da Espainiako Bankuak pentsio publikoak zalantzan jarri nahi dituenean.

Adostasun politikoaren eta akordio sozialaren bidea berreskuratu behar da Toledoko Itunaren esparruan. Horrek esan nahi du egoera atzera eraman behar dela 2011. urtean lortu zen azken akordiora. Errealitateak adierazten digu 1996tik 2011ra bitartean Gizarte Elkarrizketaren arloan negoziatu eta adostutako erreformek sistemaren babesaren, nahikotasunaren eta iraunkortasunaren arteko oreka bilatu dutela. Elkarrizketarik eta akordiorik gabe egindakoek, hau da, 1996. urtea baino lehenagoko eta 2011. urtearen ondorengo gobernuek ezarritako aldebakarreko erreformek, prestazioen murrizketen bidez gastua doitzea eta murriztea baino ez dute helburu izan.

Eta adostasun politikoaren eta akordio sozialaren bidea berreskuratzeak esan nahi du ahalik eta lasterren bi funtsezko gai jorratu behar direla:

- 1) 2013ko pentsioen erreforma indargabetzea: neurri horren bidez, pentsioen erosahalmena bermatzen duen errebalorizazio-formula berreskuratuko litzateke, automatikoki aplikatzen den jasangarritasun-faktorea ezabatuko litzateke eta hainbat alderdi hobetuko lirateke, hala nola etxeko langileen eta nekazaritzako langileen erabateko integrazioa, gutxieneko pentsioak edo erretiro aurreratuen modalitateetan sartzeko baldintzak.

2) Gizarte Segurantzaren egoera finantzarioki orekatzeko aukera emango diguten neurriak hartzea.


Neurriak norabide bikoitzean hartu behar dira:

- Alde batetik, Gizarte Segurantzako kotizazioen bidezko diru-sarrerak sendotzea. Ezin da gertatu, Gizarte Segurantzarena bezalako sistema batean, gizarte-kotizazioak finantzaketaren iturririk garrantzitsuena izanik, nahiz eta bakarra ez izan, kideen laurdenak daukaten benetako diru-sarrerengatik ez kotizatzea (gehieneko oinarriak mugatuta dituzten langileak, benetako diru-sarrerengatik kotizatzen ez duten LAABko langileak, nekazaritza-sistemakoak eta etxeko langileak ez bezala). Ez da inola ere onargarria.

Diru-sarrera errealengatik ez kotizatzeak esan nahi du, halaber, zati handi batek ere ez duela diru-sarrera errealengatik tribututzen, eta horrek eragin handia du zerga-arloan eta Gizarte Segurantzaren diru-sarreretan. Baina ez dugu ahaztu behar gizarte-babesari dagokionez ere, pertsona horientzat beharizan-egoerak iristen direnean eragin negatiboa duela. Izan ere, langile horiek diru-sarrera errealengatik ez kotizatzeak eragina du sistemaren diru-sarreretan, baina baita gizarte-prestazio txikiagoa ere. Diru-sarrerak hobetzeko beste neurri batzuk hauek izango lirateke: enplegua sortzeagatiko kotizazioen hobariak eta murrizketak kentzea, iruzurraren aurkako borroka hobetzea eta enplegua eta soldatak berreskuratzea lortzea.

Kotizazioen bilketari buruz ere hitz egin behar da. 2016. urtera arte, enpresa-ekarpenek behera egin dute, enpleguaren suntsipenaren eta lan-merkatuko jarduketan ondorioz, lan-erreformen ondorioz. Bestalde, ona da gogoratzea azken 30 urteetan kotizazio-tasak 4 puntu jaitsi direla.

Gráfico IX.8 EVOLUCIÓN DE LAS COTIZACIONES A LA SEGURIDAD SOCIAL DE LOS EMPLEADORES (% DEL PIB) UE-15 Y ESPAÑA




Evolución de los tipos de cotización por contingencias comunes del Régimen General						
	1982	1983	1984	1985-1992	1993-1994	1995-2016
A cargo del empresario	27,28	25,80	24,30	24,00	24,40	23,60
A cargo del trabajador	4,82	4,80	4,80	4,80	4,90	4,70
Total	32,10	30,60	29,10	28,80	29,30	28,30

Kotizazio-tasak ez dira ukiezinak. Ez enpresenak, ez langileenak

- Eta bestetik, zerga-politika egoki baten bidez. Gizarte Segurantzak bi finantzabide ditu: jardunean ari diren pertsonen kotizazioak eta aurrekontu-ekarpenak. Lehenengo lerroko sarrerak erortzen badira, bigarrenak ekarpen handiagoa egin behar du, eta, horretarako, zerga-erreforma sakona behar da, zerga-sistema bat eduki ahal izateko. Sistema horrek ziurtatu beharko du, lehenik eta behin, guztiok ordaintzea eta, bigarrenik, gehien duenak gehiago ordaintzea. Bestela esanda, ekitate, progresibitate eta nahikotasun printzipioak ezaugarri dituen eredu fiskala. "Zein eredu fiskal zein ongizate estaturako" dilema ebatziko duen eztabaidari ekin behar zaio.

Estatuaren ekarpenen bidez diru-sarreraren fluxu egonkor eta nahikoa bermatzeko modu bakarra da, eta ez maileguen kontzeptua.



Fuente: Eurostat. Total general government revenue

Euroguneak baino 7,7 puntu gutxiagoko presio fiskala dugu, eta horrek, diru-bilketari dagokionez, 90.000 milioi euro baino gehiago sartzeari uztea dakar. Eta Europako batez bestekoa baino 7,1 puntu gutxiago ditugu, Frantziak baino 13,5 puntu gutxiago eta Italiak baino 8 puntu gutxiago.

Adierazi da aparteko finantzaketa zorrarekin egingo dela. Eta zor publiko horri aurre egiteko, gure herriaren erantzuna behar zen, zalantzarik gabe, baina baita Europaren erantzuna ere. EBren akordioa positiboa izan da, baina ez da nahikoa izan. Ezinbestekoa zen Europak, Europako herrialde guztiek, ez soilik Hegoaldekoek, horrelako egoera berezi bati aurre egiteko beharko duten zorraren jaulkipena babestea. Baina ezin diogu Europari laguntzarik eskatu, besteak beste, gure zerga-politikak harmonizatzen ez baditugu.

Baina Gizarte Segurantzaren ez dira pentsioak bakarrik. Bizitzeko Gutxieneko Diru-sarrerara onartu berri da, muturreko pobrezia desagerrarazteko helburuarekin. Neurri hori beharrezkoa zen, eta positiboki baloratu behar da. Gizarte Segurantzaren prestazio gisa konfiguratu da, eta bateragarria izango da Euskadin indarrean dagoen Diru-sarrerak Bermatzeko Errentarekin (DSBE). Beraz, eskubide subjektiboa eta iraunkorra da, aplikatu beharreko denbora-eremuan.

Legebiltzarreko izapidean, hobetu egin daitezke eta hobetu egin behar dira haren diseinua eta edukia, besteak beste, gabezia tekniko batzuk zuzentzeko; adibidez, nabarmentzekoa da 2020. urterako estalduratik kanpo utzi direla langabezia-sorospena jasotzen duten pertsonak, eta hori ez da ulergarria.

Hura onartzeak gizarte-babesaren estaldura-hutsune bat betetzea ahalbidetu du, baina ez zen bakarra. Langabeziagatiko babes-sistemak hutsune nabariak ditu. Bizitzarako Gutxieneko Sarrerarekin horietako batzuk estaliko dira, baina ez erabat. Hurrengo koadroan, kotizaziopeko prestazioetan, sorospenetan eta enplegu-politika aktiboetan 2002tik hona izandako gastua ikus daiteke, eta argi eta garbi ikus daiteke langabezia-kotizazioak prestazioak baino handiagoak direla.

Kotizaziopekoak. Oso komenigarria da orain kotizaziopeko prestazioez gain, asistentzialak eta enplegu-politika aktiboak finantzatzen dituzten langabezia-kotizazioak berrantolatzea.

Saldo del Sistema de Desempleo (millones de euros)

Año	GASTOS				INGRESOS	SALDO REGISTRADO	SALDO CONTRIBUTIVO
	Prestaciones Contributivas	Prestaciones Asistenciales	Políticas activas	TOTAL Gastos	cotizaciones desempleo	Ingresos cuota desempleo - gasto prestaciones y PA	Ingresos - Gasto prestaciones contributivas
2002	7.829	3.096	4.808	15.733	13.474	-2.259	5.645
2003	8.329	2.796	5.357	16.482	14.533	-1.949	6.204
2004	9.140	3.010	5.702	17.852	15.451	-2.401	6.311
2005	9.751	3.215	6.109	19.074	16.793	-2.281	7.042
2006	10.601	3.309	6.990	20.900	18.245	-2.655	7.644
2007	11.527	3.501	7.067	22.095	19.356	-2.739	7.829
2008	14.290	3.872	6.385	24.548	15.031	-9.517	741
2009	23.803	8.563	7.281	39.647	18.419	-21.228	-5.385
2010	23.462	7.004	8.466	38.932	13.600	-25.332	-9.862
2011	20.754	11.100	7.714	39.569	18.152	-21.417	-2.602
2012	22.677	9.021	5.116	36.813	17.400	-19.413	-5.277
2013	21.456	8.651	3.765	33.872	16.777	-17.095	-4.678
2014	16.695	8.101	5.313	30.110	17.113	-12.996	418
2015	13.042	7.619	4.150	24.811	17.853	-6.958	4.811
2016	11.671	6.922	4.390	22.983	18.758	-4.226	7.087
2017	11.024	6.373	5.575	22.972	19.750	-3.222	8.726
2018	11.370	5.933	5.278	22.581	21.000	-1.581	9.630
2019	12.285	6.416	8.138	26.839	22.740	-4.099	10.455
2020*	4.839	3.190	831	8.860	7.173	-1.687	2.334

*Hasta abril 2020

Fuente: elaboración propia CCOO a partir datos SEPE

Ikus daitekeenez, langabezia-soberakinen 10.000 milioi euro erabili ahal izango ditugu. Ministerioak honekin pentsioak ordaintzea proposatu du. Ene ustetan hau ez da egokia, ezin baitzaio gizarteari adierazi langabezia-prestazioak eta -sorospinak kontuan hartu gabe ordaintzen direla pentsioak. Langabezia-prestazioek hutsune handiak dituzte, eta are gehiago 2012ko murrizketen ondoren, 181. egunetik aurrera prestazioa oinarri arautzailearen % 60tik % 50era murrizten baitzuten. Gainera, milaka langabe daude beharrak dituzten arren, estaldurarik gabekoak. Ondorioz, lehenik eta behin, hobetu ditzagun langabezia-prestazioak, eta ondoren berrantolatu ditzagun kotizazioak, azken soberakinarekin pentsioak ordaindu ahal izateko. Azken batean, berandu baino lehen, gure Gizarte Segurantzako Sistema Publikoak aurrean dituen erronkei arrakastaz aurre egiten ahalbidetuko duen diru-sarreraren egitura bat behar dugu.

Donostia, 2021eko maiatzaren 29a

Eduardo García Elosua

(Helduak Adi!n Euskarara itzulia)